

Harian

11 ■ **Genero indarkeria**
Emakumeen aurkako erasoak gelditzeko zigorrak ez direla nahikoa adierazi du Joseba Azkarragak.

EAE-KO euskararen Legea > 25 urte



Inmaculada Boneta, Juan Jose Pujana eta Jose Luis Lizundia, Eusko Legebiltzarreko saio batean. **BERRIA**

Mende laurdena Bekostatuko bileratik

Euskararen Erabilerarako eta Normalizaziorako Legea gauzatzeko prozesu «luzea» azaldu dute hura prestatu zuten protagonistek.

ASIER ITURRIAGAE TXEBARRIA
Bilbo

Legutioko (Araba) Bekostatu EAJko eta Euskadiko Ezkerreko (EE) kideek bazkari-batzarra egin zutenetik 25 urte igaro dira. 1982ko maiatzaren amaiera zen, eta bi alderdiok handik hilabete gutxira Legebiltzarrak onartu zuen Euskararen Erabilerarako eta Normalizaziorako Legearen oinarriak ezarri ziren bertan. 1982ko azaroaren 24an izan zen hori, bihar 25 urte. Baina legeak ez zuen bi alderdi horien babesa bakarrik izan.

Garai hartan Eusko Legebiltzarrean zeuden ia alderdi guztiek babestu zuten nolabait, edo ez zuten kontratu egin. Manuel Fraga eskuindarrak sortutako Alianza Popular alderdiak (AP) bakarrik adierazi zuen kontrako jarrera garbia.

«Legea prestatzeko lanetan elkarren artean izan genuen giro ona daukat gogoan», azaldu du Inmaculada Boneta garai hartako Legebiltzarreko presidenteorde eta legea prestatzeko batzorde txostengileko kideak. Lege horrek lortu zuen adostasuna sarri errepikatzen da garai hori bizi izandakoan artean. Horren erakusgarri da garai hartan lehendakaritzan zen EAJk eta EEk osorik adostu izana legea, eta sozialistekin edukien %60 edo %70 adostu izana.

Baina adostasuna lortzea ez zen erraza izan, EAJ eta EErentzat ere ez. Jose Luis Lizundia euskaltzainak legearen prestatketan eta negoziazioetan zuzen-zuzenean parte hartu zuen, EEren izenean. Ondo

gogoan dauka Bekostatutik irtetean Pedro Miguel Etxenike garai hartako Hezkuntza sailburuarekin izandako elkarrizketa. «Autoz Abadiñora eramango ninduela esan zidan, eta bidaia marmarrean egin zuen. Bezperan EAJko kideek Ajuria-Enean egin zuten bidaian, Labaienek gurekin kontuz ibiltzeko oharra egin zien, baina gero, bileraren egunean, bezperan ukatuko zizkigun puntuak onartu egin zituen Labaienek».

Zailtasunak zailtasun, legeak bide luzea egin zuen Legebiltzarrean, onartu zuten arte. Hezkuntza eta Kultura sailek aurkeztu zuten lege proposamena, eta alderdiek zuzenketak egin zizkieten. APk bakarrik egin zuen osoko zuzenketa, legea Gubernura itzultzeko eskatuz. Zuzenketak jaso ostean, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak porentzia osatu zuen, legea prestatzeko. Kide hauek osatu zuten batzorde txostengilea: Alberto Ansoa (EAJ), Lizundia (EE), Joaquin

Aginaga (UCD), Jose Antonio Marturana (PSE) eta Juan Infante (EPK).

MITXELENAREN ERAGINA. Legea osatzeko prozesua «astuna» izan zela gogoratu du Lizundia, eta EAJk alderdien artean adostasuna lortzeko asmoa zeukala. Koldo Mitxelena euskaltzaina eta garai hartako EAJko kidea jartzen du horren sustatzaile nagusi modura, eta legegaren atzetik zebilen «Espiritu Santutzat» dauka. «Etxenikek eta Mitxelenak harreman handia zuten, eta baliteke horregatik hark hartzea ardura handiagoa, [Ramon] Labaien lekua hartuta».

Kultura sailburua zen orduan Labaien, eta, berez, biek eraman beharko zuten negoziaketan edo horien azalpen publikoaren ardu-

«Kontsentsua lortzea errazagoa zen orduan, eskuinekoak lotsati eta koldar zeudelako»

JOSE LUIS LIZUNDIA
EUSKALTZAINA ETA LEGBILTZARKIDE OHIA

«Kontsentsua lortzearen, lege ahulagoa izan genuen, eta ni ez nengoen horretarako prest»

RAMON LABAIEN
KULTURA SAILBURU OHIA

ra. Baina, une batean, Etxenikek eman zuen aurpegia berak bakarrik. Labaienek azaldu duenez, berak bere kabuz erabaki zuen albo batera egitea. «Lehendakariak, Garaikoetxeak, adostasuna lortzeko premia azaldu zigun. Baina horrek lege ahulago bat izatera behartzen gintuen, eta ni ez nengoen horretarako prest».

Kontsentsu edo adostasun horretara heltzeko, gaur egun baino erraztasun handiagoak zeuden, orduko giro politikoak gaurkoarekin zerikusi gutxi zeukalako. Xabier Oleaga *Egin* egunkariako kazetaria zen orduan, eta berak jasotzen zuen Legebiltzarreko informazioa. «Frankistek edo frankista izandakoek, AP eta UCDren kasuan, izugarriko konplexuak zituzten iragan hurbilarekiko. Birziklatze horren ondorioz erakutsi behar izan zuten atxikimendua euskararekiko». Horrekin ados dago Lizundia. «Koldarti, lotsatuta eta ostenduta zeuden orduan».

Sozialisten kasuan, Felipe Gonzalez Madrilén boterera iristek (1982ko urriko hauteskundeak irabazi zituen) jarrera aldaketa ekarri zuela uste du Lizundia. Horri gaineratzen dio Espainiako Gobernuak Tejeroren estatu kolpearen ostean indarrean jarritako LOAPA Legea (autonomia erkidegoei eskumenak murriztu zizkien). «Legeko hainbat artikulua atzera bota zituen, eta Auzitegi Konstituzionalak arrazoi eman zion zenbait kasutan. Nire ustez, Estatuko botere faktikoei topo egin zuten sozialistek, eta legegaren kontrako errekurtsoak jarri behar izan zituzten». Justizia Administrazioa eskumenei buruzkoa da errekurtsioetako bat. «Funtzionarioek, epailek-eta, ikusten zuten merkatua txikituko zitzaizela hemen euskara edo Katalunian katalana jakin behar izanez gero, eta presio gogorra egin zuten nahi zutena lortu arte».

Behin legea onartuta, garatu beharra zegoen, eta hori kudeatzea egokitu zitzaion Mari Carmen Garmendiarri, 1985. urtetik hamar urtez Hizkuntz Politikarako idazkaria izan zelako. Gogoan dauka 1986. urtean Auzitegi Konstituzionaletik Jaurilaritzaren interesen kontrako helduzen ebazpena. Baina, arazoak arazo, legeak emandakoarekin gustura dago. «Aurrerapen handia izan da 25 urte hauetan, baita erabileran ere. Ezagutu genuenaren eta orain ezagutzen dugunaren arteko aldea izugarria da».

Legeak izan duen garapenaren inguruan ez dago horren gustura Boneta (orduan EAJn, gaur EAn). «Legea indarrean ipintzea askoz errazagoa izango zela uste genuen. Gauza asko lortu ditugu, baina ba-